



MEMORIA 2019KO EKITALDIA

1. oharra.- Erakundearen antolaketa eta jarduerak.

a) Erakundea sortzeko eta arautzeko arauak

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, ezartzen du foru aldundiaren eskumena dela 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei (Gasteiz izan ezik beste guztiei) suteen prebentziorako eta suteak itzaltzeko zerbitzua ematea. Zehazki, 2013ko abenduaren 31tik aurrera, aldundiek bere gain hartu behar dute zerbitzu ematea, aipatutako udalerriek zerbitzu hori ematen ez badute, eta ordutik aurrera berariaz izango da foru aldundiaren berezko beste eskumen bat, eta, beraz, eska daitekeena.

Bestalde, Larrialdiak Kudeatzeko Legeak (1/96 Legea, apirilaren 3koa) lurralde historikoei esleitu zien prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua sortu, antolatu eta mantentzeko eginkizuna. Esleipen horri eutsi egiten dio Larrialdiak Kudeatzeko Legearen oraingo testu bateginak, zeina martxoaren 28ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsi baitzen.

Foru ordenamenduak eskaintzen dituen aukeren artean, erabaki da erakunde autonomo bat sortzea Araban prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua zuzenean emateko, Aiarako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa (PSISZ), zerbitzu hori 1992az geroztik ematen zuena Aiarako Kuadrillaren lurraldean, azkenduta.

Eta, horretarako, Arabako Batzar Nagusiek, 2016ko uztailaren 13an egindako osoko bilkuran, uztailaren 13ko 8/2016 Foru Araua onetsi zuten, ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK – BOMBEROS FORALES DE ÁLAVA erakunde autonomoa (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) eratu duena.

Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2016ko uztailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zen haren jardueraren hasiera data 2016ko urriaren 1a izango zela.

Urriaren 1eko 40/2015 Legeak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea) 127. artikuluan dio partzuergoan bildutako entitateek erabaki ahal izango dutela, estatutuetan ezartzen den gehiengoarekin edo, estatutuetan ezarri ezean, aho batez, aktibo eta pasibo guztiak lagatzea juridikoki egokia den sektore publikoko beste entitate bati, jarduerak jarraitzeko eta azkentzen den partzuergoaren helburuak erdiesteko; orobat dio aktibo eta pasibo guztiak lagatzeak berekin ekarriko duela partzuergo lagatzailea likidaziorik gabe azkentzea. Hartan xedatutakoa oinarri hartuz, erakunde autonomo berrian integratu ziren Aiarako PSISZ partzuergo azkenduaren 2016ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era arteko eragiketa guztiak, bai eta 2016ko urtarrilaren 1eko hasierako saldoak ere.

b) Erakundearen jarduera nagusia, haren lege, ekonomia eta finantza eta kontratazio araubidea.

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK-BOMBEROS FORALES DE ÁLAVA foru erakunde autonomoa (Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde publiko bat da, berezko nortasun juridikoa duena, eta bere barne araubidean zein jardueran zuzenbide publikoaren pean dihardu. Erakunde tekniko espezializatu moduan eratua da, prebentzio, su



itxaltze eta salbamendu zerbitzu publikoa kudeatzeko eta emateko eta Arabako Lurralde Historikoan babes zibilaren eta larrialdien arretaren arloan parte hartzeko.

Erakunde autonomoak arau hauen pean dihardu: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta haren lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoa, lege horretan foru erakundearen xede den zerbitzu publikorako ezarritako eskumen esparruari dagokionez; eta haren jardun eremuari dagozkion gaiak arautzen dituen berariazko araudi sektoriala.

Haren antolamendua eta funtzionamendua honako hauen pean daude: erakunde autonomoen araubide juridikoa ezartzen duen foru araudia, haren estatutuak eta haiek garatzen dituen arautegia.

Administrazio ahalmenak erabiltzean, dagokion foru araudia ez ezik, urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, edo hura ordezkatzeko duen araudia ere bete beharko du.

Erakunde autonomoaren kudeaketa urteroko aurrekontu araubidearen pean dago, eta Batzar Nagusiek onesten dute aurrekontua. Aurrekontuen egitura (sarreraren eta gastuen sailkapenari, xehetasun mailari eta haien gauzatze eta likidazioari dagokienez) Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Araubidea osatzen duten arau eta erregelatara moldatzen da, eta bereziki Jarduera Ekonomiko eta Foru Zerbitzu Publiko Deszentralizatuen Kudeaketaren gaineko Foru Arauak (15/1987 Foru Araua, urriaren 30ekoa) eta Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen Foru Arauak (53/1992, abenduaren 18koa) ezartzen dutenarekin bat etorritik.

Erakunde autonomoaren kontabilitatean, kontu ematean eta kontu hartzean aplikatzen den araubidea, foru aldundiaren kontrol ekonomikorako eta kontabilitaterako araudi bereziak foru erakunde autonomoentzat ezarritakoa da.

Kontratazio araubidea jasota dago Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora.

c) Diru sarreraren iturri nagusien deskribapena

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK – BOMBEROS FORALES DE ÁLAVA erakunde autonomoaren baliabide iturri nagusiak Arabako Foru Aldunditik jasotzen dituen transferentziak dira, bai eta jaso ditzakeen ohiko edo ohiz kanpoko diru sarrerak, besteak beste, honako hauek: erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuengatik beraiek ordaintzen dituzten tasak eta kuotak, eta beste administrazio batzuek, beren eskumeneko zerbitzuak emateagatik, egindako diru ekarpenak.

d) Erakundearen izaera fiskala.

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK – BOMBEROS FORALES DE ÁLAVA izenarekin foru erakunde autonomo bat eratzen da, izaera juridiko propioa duena, jarduteko eta Arabako Lurralde Historikoaren eremuan prebentzio, su itxaltze eta salbamendurekin loturiko foru eskumeneko jarduerak kudeatzeko gaitasun osoarekin, gai honetan beste administrazio publiko batzuek dauzkaten eskumenen kalterik gabe.



e) Antolaketa egitura

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK-BOMBEROS FORALES DE ÁLAVA erakunde autonomoaren zuzendaritza organoak Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritza-kudeatzailletza dira.

Administrazio Kontseilua erakunde autonomoaren gobernu organoa da, eta berari dagokio haren kudeaketa eta administrazioaren goi zuzendaritza, erakunde autonomoaren jardueraren antolamendu orokorra ezarri; horretarako haren lehentasunak eta zerbitzu publikoak hobetzeko proiektuak onesten ditu eta ezarrita dauzkan egitekoak aztertzen eta ebaluatzen ditu, bai eta behar diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak zenbatetsi ere.

Zuzendaritza-kudeatzailletzak erakunde autonomoaren kudeaketa exekutiboaren zuzeneko ardura dauka.

Haren eskudantzia eta eginkizunak, baita Administrazio Kontseiluko lehendakariarenak eta lehendakariordearenak ere, haren estatuetan ezarrita daude.

g) Zein erakunderen mendekoa den

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK – BOMBEROS FORALES DE ÁLAVA izenarekin, foru erakunde autonomo bat eratzen da, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailari eratzikia..

h) Ekitaldiko batez besteko langile kopurua eta abenduaren 31ko langile kopurua.

Ekitaldiko batez besteko langile kopurua 203 langile izan da, eta 2019ko abenduaren 31n langileak 205 ziren.

2. oharra.- Urteko kontuak aurkezteko oinarriak.

2.1).- Irudi zehatza

a) Informazioaren betebeharrak:

Ondare kontabilitatean islatutako kontabilitateko jarduketarik gehien jatorria aurrekontuko kontabilitateko eta aurrekontuz kanpoko eragiketarako jarduketetan dago. Horregatik, jarduketa hauetan aplikatutako kontabilitateko printzipioak Araba Lurralde Historikoko Ekonomiako eta Aurrekontuko Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauan jasotakoak dira. Printzipio horiek bat datoz zehazki Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean (75/2012 Foru Dekretua, abenduaren 18koa) ezarritako nahitaezko kontabilitate printzipioekin.

2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaren urteko kontuak Administrazio Kontseiluak onetsi zituen 2019ko maiatzaren 24an. 2019ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak onesteko daude, eta uste da aldaketarik gabe onetsiko direla.



b) Kontabilitate printzipioak:

Urteko kontu hauek egitean memoriako 3. oharrean laburbiltzen diren kontabilitate printzipio eta arauak aplikatu dira. Ondarean, finantza egoeran eta emaitzetan eragina duten nahitaezko kontabilitate printzipio guztiak aplikatu dira urteko kontu hauek egiteko.

2.2) Informazioa alderatzea:

2019ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren eta 2018ko ekitaldiaren diru kopuruak aurkezten dira, honako hauen partida bakoitzerako: balantzea, ekonomia eta ondare emaitzaren kontua, ondare garbian izandako aldaketan egoera, eskudiru fluxuaren egoera eta memoria.

2.3) Balioespenaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena:

Erakundeak kudeaketa etengabeko printzipioari jarraituz gertatu ditu 2019ko ekitaldiko urteko kontuak, COVID-19aren egungo egoera kontuan harturik, baita hark oro har ekonomian eta bereziki erakundearen izan ditzakeen ondorioak ere. Haren jardueran ez dago jarraitasun arriskurik, memoria honetako 16. oharrean zehaztu den bezalaxe.

3. oharra.- Aitortzeko eta baloratzeko arauak.

a) Ibilgetu materiala.

Esleitutako ibilgetu materiala kontabilitate balio garbiaren arabera baloratzen da. Erakundeak eskuratutako ibilgetua, hau da, bere aurrekontuaren kargurakoa, aldiz, eskuratze prezioaren edo eraikitze kostuaren arabera baloratzen da.

Ibilgetuko elementuen eskuraketak, 1.000,00 euro baino gutxiagoko zenbatekoa daukatenean, ekonomia eta ondareko emaitza kontura eramaten dira zuzenean.

Eraikinak eraberritzeko gastuak eta higiezinetan egiten diren eragiketa guztiak, mantentze lan hutsen barruan sartzen badira, ekonomia eta ondareko emaitza kontuan kargatzen dira zuzenean (622 "Ibilgetu Materialaren Konponketa eta Kontserbazioa" kontuaren bitartez).

Beste erakunde batzuen jabetza diren eraikinetako edo instalazioetako obren eragiketak zuzenean ekonomia eta ondareko emaitza kontura kargatzen dira.

Inoiz ez dira kapitalizatzen finantza gastuak.

Erakunde autonomoari atxikitako ondasunak, izatekotan, Foru Aldundiak eskualdatu ditu, haien gainerako eskubide guztiekin batera, jabetza izan ezik.

Erakunde autonomoak ondasun horiek kontabilizatzen ditu 21 "Ibilgetze materialak" azpitaldeari dagokion kontuan kargua eginez, eta 1001 "Ondasun eta Eskubideen Ekarpina" kontuan abonua eginez.

Ekitaldi honetan, Foru Aldundiak lagatako ondasun higiezinak dagokienez, eransketak eta bajak hark berak koordinatuta, bi erakundearen artean eratzitako ondarearen kontua koadratuta mantentzeko irizpidea aplikatu da.



Amortizazio koefizienteak finkatzea Ondarea Kudeatzeko Programan adierazitako balioen arabera egin da. Programa horrek amortizazioaren lanketa modu xehatuan egiten du, sartzen denetik irteten den arte.

Hona hemen kudeaketa programa horrek (SAP) kasu bakoitzean aplikatutako amortizazio koefizienteen laburpena, ondasun motaren arabera:

Kontua	Ondasun mota	Azalpena	Bizitza erabilgarria Urteak/hilak
210000	Guztiak	LURRAK ETA ONDASUN NATURALAK	Mugagabea
211000	Guztiak	ERAIKUNTZAK	50/00
216000	Guztiak	ALTZARIAK	08/08
217000	Guztiak	INFORMAZIOA PROZESATZEKO EKIPAMENDUA	04/00
214000	N06106	BESTELAKO MAKINAK	06/08
214000	N06201	TRESNERIA	05/00
215000	N06812	BESTELAKO INSTALAZIO TEKNIKOAK	04/00
218000	N06501	IBILGAILU ETA FURGONETAK	07/02
218000	N06502	KAMIOIAK	05/00
218000	N06601	IBAI ONTZIAK	07/02

b) Ibilgetu ukiezina

Esleitutako ibilgetu materiala kontabilitate balio garbiaren arabera baloratzen da. Erakundeak eskuratutako ibilgetua, hau da, bere aurrekontuaren kargurakoa, aldiz, eskuratze prezioaren edo eraikitze kostuaren arabera baloratzen da.

Amortizazioa linealki kalkulatzeko da 4 urteko epe batean, % 25eko tasaren arabera.

c) Izakinak.

Erregaien, ordeko piezen, hainbat materialen, bilgarrien eta bulegoko materialen izakinak ez dira kontabilizatu; izan ere, ez da egin horien inbentario fisikorik ekitaldiaren amaieran beren saldoa zuzendu ahal izateko. Gisa honetako ondasunen eskuratzeak zuzenean kargatzen dira ekonomia eta ondareko emaitza kontura ("Bestelako hornidurak" izeneko kontuaren, 628 zenbakia duenaren, bidez), beste hornikuntza batzuen erosketak gisa kontabilizatu eta 612 kontuaren ("beste hornikuntza batzuen izakinen aldaketa" izenekoaren) bidez ekitaldiaren amaieran erregularizatu beharrean, izan ere, ez dira oso esanguratsuak.

d) Transferentziak eta dirulaguntzak

Gastu arruntak finantzatzeko dirulaguntzak honi egotzi zaizkio: dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastuak zein ekitalditan sortzen diren, horren emaitzari. Ostera, aktiboak eskuratzeko kapital dirulaguntzak ekitaldi bakoitzaren emaitzari egotziko zaizkio, ondasunaren bizitza baliagarriaren proportzioan, elementu horiek amortizatzeko hornidurarako erabili den metodo bera aplikatuz.



e) Hartzekodunak.

Epe luzerako eta laburrerako zorrak beren ordainketa balioaren arabera agertzen dira kontabilizatuta.

f) Diru sarrerak eta gastuak.

Diru sarrerak eta gastuak, beraiek ordezkutzen dituzten ondasun eta zerbitzuen korrante errealaren arabera onartzen dira, betiere zuhurtzia printzipioaren irizpidez.

g) Hornidurak eta kontingentziak

Zordunen saldoak, beharrezkoak diren balorazio zuzenketa balio nominal garbiaren arabera adierazten dira, zuhurtasun irizpidez aplikatuz. Irizpide orokor gisa, itxitako ekitaldietan kobratzeko geratzen diren dirusarreraren % 100 hornitzea erabaki da, dirulaguntzak edo jasotako transferentziak ez direnak.

4. oharra.- Ibilgetu materiala.

Hona hemen ibilgetu materialaren mugimenduaren xehetasunak, 2019ko ekitaldian:

Ekitaldiko alta gisa, aleko eskuratze balioa 1.000,00 euro baino gehiagokoa duten ondasunak soilik izan dira kontuan, foru aldundiak emandako irizpidearen arabera.

KONTUA	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Intsuldaketak	Amaierako saldoa
Lurrak	125.952,08				125.952,08
Eraikuntzak	6.014.972,24	63.748,02	80.478,11		5.998.242,15
Makinak- tresnak	702.108,13	206.601,83			908.709,96
Instalazio teknikoak	30.831,67	16.618,04			47.449,71
Altzariak	114.343,07	1.742,40			116.085,47
Informazioa prozesatzeko ek.	48.198,65	5.843,33			54.041,98
Garraio elementuak	3.508.159,56				3.508.159,56
GUZTIRA	10.544.565,40	294.553,62	80.478,11		10.758.640,91

Ibilgetu materiala amortizatu da 815.312,87 euroko zenbatekoaz (861.607,84 euro 2018an), eta 681 "Ibilgetu materiala amortizatzeko zuzkidura" kontuan jaso da.



KONTUA	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Amaierako saldoa
Eraikuntzen amortizazio metatua	223.683,03	136.951,67	2.548,47	358.086,23
Makina-tresnen amortizazio metatua	500.768,06	78.895,70		579.663,76
Inst. teknikoen amort. metatua	12.535,14	3.590,25		16.125,39
Altzarien amortizazio metatua	63.310,19	13.529,10		76.839,29
Informazioa prozesatzeko ekipamenduen amort. metatua	41.553,33	3.675,76		45.229,09
Garraio elementuen amort. metatua	2.157.959,31	578.670,39		2.736.629,70
GUZTIRA	2.999.809,06	815.312,87	2.548,47	3.812.573,46

Ekitaldiaren itxieran erabat amortizatuta eta, horrenbestez, “zero” kontabilitate balioa dutela, agertzen dira honako elementu hauek. Beren eskuratze balioaren eta kontuaren arabera adierazi ditugu:

KONTUA	Elementu kop.	Eskuratze edo harpidetze eguna
Makinak eta tresnak	156	397.812,91
Instalazio teknikoak	5	7.293,15
Altzariak	15	26.086,11
Informazioa prozesatzeko ek.	6	36.594,83
Garraio elementuak	71	2.004.375,92
GUZTIRA	253	2.472.162,92

5. oharra.- Ibilgetu ukiezina.

Hona hemen Ibilgetu ukiezinaren 2019ko mugimenduak eta haien amortizazio metatua, xehetasunez.

Ibilgetu ukiezina amortizatu da, 25.664,95 euroko zenbatekoaz (17.539,61 euro 2018an), eta 680 "Aplikazio informatikoak amortizatzeko zuzkidura" kontuan jaso da.

KONTUA	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Intsuldaketak	Amaierako saldoa
Aplikazio informatikoak	93.484,36	18.150,00			111.634,36
Bestelako ibilgetu ukiezina	137.751,29				137.751,29
GUZTIRA	231.235,65	18.150,00			249.385,65



KONTUA	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Amaierako saldoa
Informatika aplikazioen amort. metatua Bestelako ibilgetu ukiezinaren amort. metatua	23.388,65	25.664,95		49.053,60
GUZTIRA	23.388,65	25.664,95		49.053,60

Ekitaldiaren itxieran erabat amortizatuta eta, horrenbestez, “zero” kontabilitate balioa dutela, agertzen dira honako elementu hauek. Beren eskuratze balioaren eta kontuaren arabera adierazi ditugu:

KONTUA	Elementu kop.	Eskuratze edo harpidetze eguna
Aplikazio informatikoak	5	10.238,84
GUZTIRA	5	10.238,84

6. oharra.- Ondare garbia.

Hona hemen 2019ko ekitaldian ondare garbian izandako mugimenduen xehetasunak:

Ondasun eta eskubideen ekarpena: Arabako Foru Aldundiak eratzikitako ondasun guztiek osatzen dute saldoa.

KONTUA	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Intsuldaketak	Amaierako saldoa
Ondasunen eta eskubideen ekarpena	9.368.911,16	63.748,02			9.432.659,18
Erakunde jabearen/jabeen bestelako ekarpenak	76.899,48				76.899,48
Ondasun eta eskubideen itzulketak			-80.478,11		-80.478,11
Aurreko ekitaldietako emaitza	-996.773,98			-844.502,54	-1.841.276,52
Ekitaldiko emaitza	-844.502,54	13.212.011,55	-14.011.640,70	844.502,54	-799.629,15
Ibilg. ez-finantz. dirulag. finantz.	155.722,21	248.955,60		-39.833,18	364.844,63
KONTABILITATE BALIO GARBIA	7.760.256,33	13.524.715,17	-14.092.118,81	-39.833,18	7.153.019,51

7. oharra.- Zordunak.

a) Uneko ekitaldiko 430 "Aitortutako Eskubideen Zordunak" kontua.



Ekitaldiaren amaieran erakunde autonomoak duen uneko ekitaldiko zordunen saldoa 1.353.150,76 euro da (534.706,75 euro 2018ko ekitaldiaren amaieran).

b) 431 "Ekitaldi itxietako eskubideak" kontuak daukan uneko ekitaldiko zordunen saldoa 49.907,02 euro da, eta kopuru horretatik 35.000,00 euro Burgosko Diputazio Probintzialari dagozkio. Gainontzekoa beste zordun batzuei dagokie eta bere osoan horniturik dago.

8. oharra.- Hartzekodunak.

a) Uneko ekitaldiko 400 "Aitortutako Betebeharren Hartzekodunak" kontua

Ekitaldiaren itxieran, ordaintzeke dauden aurrekontuko hartzekodunak daude, 1.147.260,70 euroko zenbatekoaz. (611.249,34 euro, 2018ko ekitaldiaren amaieran)

b) 47 "Erakunde publiko hartzekodunak" azpitaldea

Hona hemen, xehaturik:

KONTUA	2019ko SALDOA	2018ko SALDOA
475.5 Ogasun publiko hartzekoduna zerga kontzeptuengatik	191.898,50	146.687,10
476.4 Gizarte Segurantzza	314.047,71	301.773,06
476.3 Elkarkidetza	31.072,78	26.816,16
476.1 Foru elkarkidegoa	1.875,78	1.455,52
GUZTIRA	538.894,77	476.731,84

9. oharra.- Finantza kontuak.

a) 57 "Eskudirua eta aktibo likido baliokideak" azpitaldea

Erakunde autonomoaren diruzaintzaren hasierako saldoa, 2019ko urtarrilaren 1ekoa, 565.588,57 euro da, eta ekitaldiko mugimenduen fluxuak sortutako azken saldoa, berriaz, 318.825,56 euro da.

10. oharra.- Gordailuan jasotako balioak.

560 "Epe luzean jasotako fidantzak" kontuak betebehar bat betetzearen berme gisa jasotako eskudirua islatzen du, haren eraketatik epemuga urte betekoa edo luzeagoa izanik.

Ekitaldiaren amaieran erakunde autonomoak duen uneko ekitaldiko zordunen saldoa 19.178,58 euro da. (10.835,09 euro, 2018ko ekitaldiaren amaieran)

11. oharra - Diru sarrerak eta gastuak.

a) Gizarte kargak



Hona hemen kontzeptu hori dela-eta ekitaldian zehar izandako gastuak, xehaturik:

64. GIZARTE KOTIZAZIOAK	2019ko ek.	2018ko ek.
642.0 Gizarte Segurantzak	3.159.939,47	2.649.745,99
643.0 Elkarkidetza	96.173,12	80.082,32
649.0 Jarduneko langileen beste gastu sozialak	120.818,33	147.364,09
GUZTIRA	3.376.930,92	2.877.192,40

b) Emandako transferentziak eta dirulaguntzak

Su itzaltze eta salbamendu zerbitzua emateko sinatutako lankidetzak hitzarmenengatik udalei eta administrazio orokorreko toki erakundeei egindako transferentziak jasotzen ditu. Hona hemen haren xehetasunak, ekitaldiaren itxieran:

65. TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK	2019ko ek.	2018ko ek.
Gaubeako Udalarekiko hitzarmena	5.322,74	4.680,98
Kanpezuko boluntario taldearekiko hitzarmena	773,70	1.017,70
GUZTIRA	6.096,44	5.698,68

c) Jasotako Transferentziak eta Dirulaguntzak

Kontu honetan, nagusiki, erakunde autonomoaren aurrekontu defizita berdintzeko Foru Aldunditik jasotako transferentziak jasotzen dira, honela xehaturik:

JASOTAKO TRANSFERENTZIAK	2019ko ek.	2018ko ek.
Arruntak. Arabako Foru Aldundia	13.086.078,68	10.862.773,85
Arruntak. Burgosko Diputazio Probintziala	35.000,00	35.000,00
Kapitala. Arabako Foru Aldundia	281.610,48	310.000,00
GUZTIRA	13.402.689,16	11.207.773,85

Inbertsioak finantzatzeko jasotako kapital dirulaguntzak osorik intsuldatzen dira 130 "Aktibo ez-finantzarioak finantzatzeko dirulaguntzak" kontura. 2019ko ekitaldian mugimendu hauek izan ditu:

130 kontuaren hasierako saldoa	155.722,21
2019an erositako aktibo finkoak	319.451,53
6281 "Material ez-inbentariagarria" kontura intsuldatua	-70.495,93
Ekitaldiko emaitzara intsuldatua Amortizaziorako hornidura	-39.833,18
130 kontuaren amaierako saldoa	364.844,63

d) Foru sozietate publikoekin egindako beste eragiketa komertzial batzuk:

Foru sozietate publikoekin 2018ko eta 2017ko ekitaldietan egindako eragiketa komertzialak jarraian zehazten direnak dira:



SOZIETATEA	GASTUAREN ZENBATEKOA		SALDO HARTZEKODUNA	
	2019	2018	2019	2018
INDESA 2010 S.L.	28.205,37	20.859,12	2.361,37	2.317,68
ARABAKO KALKULUGUNEA SA	18.000,00	12.699,96	6.000,00	3.174,99
GUZTIRA	46.205,37	33.559,08	8.361,37	5.492,67

12. oharra.- Langileak.

Abenduaren 21eko 24/2018 Lege-dekretuak, zeinaren bidez presako neurriak onesten baitira sektore publikoaren eremuko ordainsarien kontuan, 3.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, erakundeko langileen ordainsariak 2019. urterako % 2,25 handitu dira oro har 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, alderatzen diren bi ekitaldietarako homogeneotasunez, bai langileen efektiboei, bai haien antzintasunari dagokienez. Gainera, beste gehikuntza bat izan dute, % 0,25ekoa, 2019ko uztailaren 1etik aurrera ondorioak dituen.

Halaber, Foru Gobernu Kontseiluaren 71/2018 Foru Dekretuak, zeinak ezartzen baititu Arabako Lurralde Historikoaren 2018ko aurrekontuen 2019ko ekitaldirako luzapena aplikatzeko irizpideak, 7. artikuluan eta Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 853/2019 Erabakian xedatutakoaren babesean, funts bat ezarri da produktibitate osagarria ordaintzeko, eta kontzeptu horrengatik ordainduko den gehieneko kopurua 2018ko abenduaren 31ko ordainsarien % 1,075en finkatu da, halaber langile publikoen ordainsarietan sendotuta.

13. oharra- Administrazio kontratazioa. Esleitzeko prozedurak.

2019ko ekitaldian, honako administrazio kontrataziohauek egin dira:

- Esku-hartzeko jantziz hornitzeko kontratua (esparru akordioaren ondoriozko kontratua), prozedura ireki bidez, 57.868,75 euroko zenbatekoan, eta 3 hilabeteen gauatzeko epearekin.
- Esku-hartzeko botaz eta basoko botaz hornitzeko kontratua (esparru akordioaren ondoriozko kontratua), prozedura ireki bidez, 11.567,60 euroko zenbatekoan, eta hilabeteen gauatzeko epearekin.
- Hainbat jantziz hornitzeko kontratua (esparru akordioaren ondoriozko kontratua), prozedura ireki bidez, 54.653,46 euroko zenbatekoan, eta hilabeteen gauatzeko epearekin.
- Ibilgailu autoeskaile raduna (modelo: Magirus DLK 23-12) konpontzeko zerbitzu kontratua, prozedura negoziatu bidez, 45.377,29 euroko zenbatekoan eta 20 egunean gauatzeko epearekin.
- Aseguru polizen zerbitzu kontratua, prozedura ireki bidez, 93.610,00 euroko zenbatekoan, eta 2 urtean gauatzeko epearekin.



- Lehen irteerako ibilgailu landa-autoponpaduna (modelo: Mercedes Atego 1529AF; matrikula: 4930 GDN) konpontzeko zerbitzu kontratua, prozedura ireki bidez, 58.685,00 euroko zenbatekoan eta 40 egunean gauzatzeko epearekin.
- Kanpoko prebentzio zerbitzuaren zerbitzu kontratua, prozedura ireki bidez, 19.600,01 euroko zenbatekoan, eta 13 hilabeteen gauzatzeko epearekin.
- Langileen atariaz eta giza baliabideen kudeaketarako hainbat funtzionalitatez hornitzeko, haiek instalatzeko eta abian jartzeko zerbitzu kontratua, prozedura ireki bidez, 18.150,00 euroko zenbatekoan, eta hilabeteen gauzatzeko epearekin.
- Esku-hartzeko jantziz hornitzeko kontratua (esparru akordioaren ondoriozko kontratua), prozedura ireki bidez, 65.762,90 euroko zenbatekoan, eta 12 egunean gauzatzeko epearekin.
- Suhiltzaile kaskoz eta maskaraz hornitzeko kontratua (esparru akordioaren ondoriozko kontratua), prozedura ireki bidez, 26.862,00 euroko zenbatekoan, eta 12 egunean gauzatzeko epearekin.
- Hainbat jantziz hornitzeko kontratua (esparru akordioaren ondoriozko kontratua), prozedura ireki bidez, 88.573,88 euroko zenbatekoan, eta 12 egunean gauzatzeko epearekin.

Esku-hartzeko botaz eta basoko botaz hornitzeko kontratua (esparru akordioaren ondoriozko kontratua), prozedura ireki bidez, 23.135,20 euroko zenbatekoan, eta 12 egunean gauzatzeko epearekin.

14. oharra.- Ingurumen informazioa

Ez dago dagozkion aurreikuspenen bidez babestu beharreko ingurumen arloko arrisku edo kosturik. Era berean, ez dago ingurumenaren babesarekin eta hobekuntzarekin lotutako gertakizunik irekita, eta, bestalde, ez dago ingurumenaren arloko etorkizuneko inbertsioetarako konpromisorik, ez eta ingurumenarekin lotutako erantzukizunik eta oraindik jaso gabeko konpentsaziorik ere.

Erakunde autonomoak ez du jaso ingurumen arloko dirulaguntzarik, ez eta ingurumenarekin loturiko jardueren ondoriozko sarrerarik ere.

15. oharra.- Obligazioak ordaintzeko epea.

Jarraian zehazten da 2019ko eta 2018ko ekitaldietan ordaintzeko batez besteko aldiari buruzko hiru hilabeteen behingo informazioa, bai eta erakunde autonomoak bi ekitaldi horietako abenduaren 31n ordaintzeke dituen eragiketei buruzkoa ere, abenduaren 22ko 1040/2017 Errege Dekretuan ezarritako kalkulu irizpideen arabera. Dekretu horren bidez, aldatzen da uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretua, zeinak garatzen baititu herri administrazioen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia eta Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Jasangarritasunaren apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako finantzaketa araubideetako baliabideak atxikitzeko baldintzak eta prozedura.

2019an, abenduaren 22ko 1040/2017 Errege Dekretu horren 5.2.c) artikulua arabera, ordainketa egunen kopurua honi iritziko zaio: faktura administrazio erregistroan sartzen den egunetik (fakturen kontabilitate erregistroan edo sistema baliokidean jasotakoaren arabera) ordainketa gauzatzen den egunera arte igarotzen diren egunen kopurua, emandako ondasun



edo zerbitzuak onartzeko edo egiaztatzeko prozedura bat aplikatzekoa den edo faktura adostasuna onetsi eta gero jasotzen den kasuetan.

2019ko ekitaldia:

Aldian egindako ordainketak	Ordaintzeko batez besteko epea (egunak)	Ordaintzeko legezko aldiaren barruan		Ordaintzeko legezko alditik kanpo	
		Ordainketa kop.	zenbatekoa, guztira	Ordainketa kop.	zenbatekoa, guztira
1. hiruh.	22,96	187	108.216,49	19	24.535,91
2. hiruh.	18,16	175	190.749,36	54	35.690,07
3. hiruh.	30,48	146	135.258,75	38	72.558,27
4. hiruh.	28,75	158	109.363,64	83	65.904,19
Egiteko eragiketak aldiaren amaieran	Egiteko batez besteko ordainketa aldia (egun)	Ordaintzeko legezko aldiaren barruan		Ordaintzeko legezko alditik kanpo	
		Erag. kop.	zenbatekoa, guztira	Erag. kop.	zenbatekoa, guztira
	9,51	53	388.186,95	0	0

2018ko ekitaldia:

Aldian egindako ordainketak	Ordaintzeko batez besteko epea (egunak)	Ordaintzeko legezko aldiaren barruan		Ordaintzeko legezko alditik kanpo	
		Ordainketa kop.	zenbatekoa, guztira	Ordainketa kop.	zenbatekoa, guztira
1. hiruh.	13,74	144	84.724,43	19	36.530,70
2. hiruh.	18,39	172	127.159,76	76	253.048,88
3. hiruh.	23,97	114	69.132,55	93	180.309,50
4. hiruh.	22,99	198	103.314,18	52	24.066,23
Egiteko eragiketak aldiaren amaieran	Egiteko batez besteko ordainketa aldia (egun)	Ordaintzeko legezko aldiaren barruan		Ordaintzeko legezko alditik kanpo	
		Erag. kop.	zenbatekoa, guztira	Erag. kop.	zenbatekoa, guztira
	5,99	41	52.704,28		



16. Oharra.- Geroko gertaerak:

2020an, COVID-19a osasun arloko larrialdi bihurtu da mundu guztian, Osasunaren Mundu Erakundea – OMEk pandemiatzat jo duelarik, eta behartu egin du neurri zorrotzak hartzea sortutako krisialdia kudeatzeko, esate baterako joan zen martxoaren 14an osasun alarma egoera deklaratzeko. Lehenago, martxoaren 13an, ostiralean, Arabako Lurralde Historikoko larrialdi plana aktibatu zen, lehenengo eta behin sortzen ari ziren arazoei aurre egiteko, eta geroago Eusko Jaurlaritzak aktibatu zuen LABI edo Euskadiko Larrialdi planari erantzunez.

Hala ere, neurri horiek galera handiak ekarriko dituzte, eta kalte egingo diete sektore publiko eta pribatuko langile eta entitateei.

Egoera horretan, erakunde autonomoak zenbait egokitze neurri hartu behar izan ditu, hiru helbururekin, funtsean: bertako langileen osasuna zaintzea, bere jardun ahalmena bermatzea krisialdian, eta herritarrak babesteko zeregin berriak bere gain hartzea, hala nola desinfekzio lanak egitea lurraldeko hainbat tokitan, COVID-19aren birusaren transmisioaren kontrako ekintza bat.

Erakundeko kudeatzaileak uste du zaila dela urteko kontu hauek egiteko garaian aurreikuspenak egitea pandemiak erakundearen geroko jardura mailan izango dituen ondorioei buruz, baina jakina dela jadanik mundu mailako pandemia honen ondorioz sortutako gastu gehigarrien zenbatekoa oraingo aurrekontuen barruan har daitekeela, gehienbat banakako babes elementuak baitira, hartan jada jasotzen zirenak. Egindako inbertsioek ez dute diru kopuru esanguratsurik egiten eta ekitaldi honetako partiden kontura hartu izan dira.

Beste alde batetik, COVID-19aren aurkako borrokan egin diren jardunen ondorioz, langile gastuek adierazgarria ez den gehikuntza izan dute bi arrazoiengatik: alde batetik, iraupen laburreko izendapen gehigarriak egin dira, I. kapituluko soberakinekin finantzatu direnak, eta beste aldetik, ohiz kanpoko ordainsari puntualak izan dira –aurrekontuan behar bezala ezarritako partidekin finantzatuak-, aipatutako egoerari aurre egiteak eskatu dituen ahaleginen ondorioz, hori guztia larrialdiko egoera batean, zeinean aktibatuta egon baita Arabako Lurralde Historikoko Larrialdietarako foru Plana.



17. oharra.- Ondare eta ekonomia emaitzaren eta aurrekontu egoeraren bateratzea.

2019ko ekitaldia

+ Aitortutako Eskubide Garbi Guztiak Aurrekontu Arruntean	13.428.273,48
- Aitortutako Betebeharrak Aurrekontu Arruntean	13.414.657,11
- Hondakinen Eskubideak Baliogabetzea	
- Euroak biribiltzearen ondoriozko aldea, hondarrak	
+ Hondakinen Betebeharrak Baliogabetzea	
- Likidazio Kontuaren araberako emaitza	13.616,37
GASTUAK	
+ 6. kapitulua "Inbertsio errealak"	319.923,43
+ 8. kapitulua "Finantza-aktiboak"	8.655,00
+ 9. kapitulua "Finantza-pasiboak"	
Aurrekontu gastuak (eragiketa arruntez bestelakoak)	328.578,43
DIRU SARRERAK	
- 6. kapitulua "Inbertsio Errealen Besterentzea"	
- 7. kapitulua "Kapital transferentziak"	248.955,60
- 8. kapitulua "Finantza-aktiboak"	9.707,42
- 9. kapitulua "Finantza-pasiboak"	
Aurrekontu sarrerak (eragiketa arruntez bestelakoak)	258.663,02
Aurrekontuz kanpoko gastuak	925.562,02
- Ekitaldiko amortizazioa	840.977,82
- Kaudimengabeziatarako hornidura	13.616,37
- Gastura eramandako inbertsioak, aktibagarritzat ez hartzeagatik	70.967,83
Aurrekontuz kanpoko sarrerak	42.401,09
+ Ibilgetu ez-finantzariorako dirulaguntzak, emaitzen kontura eramanak	39.833,18



+	Material ez-inbentariagarriaren amortizazio metatuaren doikuntza	2.548,47
+	Ibilgetu materialetik etorritako mozkinak (desatxikitzea)	19,44
+	Beste batzuk	
-	Eraitza, Kontabilitate Orokor Publikoaren arabera	799.629,15



Arabako Foru Suhiltzaileak – Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideek onetsi dituzte erakunde horren 2019ko ekitaldiko urteko kontuak.

LEHENDAKARIA:
IRMA BASTERRA UGARRIZA
Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

LEHENDAKARIORDEA:
JESUS M^a GUINEA DIAZ DE OTALORA
Lurralde Orekaren zuzendaria

KIDEA:
EDUARDO AGUINACO LZ. DE SUSO
Nekazaritza Saileko foru diputatua

KIDEA:
JAVIER HURTADO DOMINGUEZ
Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren
Saileko foru diputatua

KIDEA:
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren a